

# BALIO PROPOSAMENA

Hasteko, gu garatzen ari garen proiektua hiztunei bideratutako aplikazio batean datza. Aplikazio honen helburua, hiztunei eskaintzea IKTen bidez gor-mutu hizkuntza irakastea da, testen eta proben bidez. Beharrezkoa ikusten dugu garatzea zerbitzu mota hau oraindik inork ez duelako inoiz eskaini. Hain garrantzitsua izanda ere denok gure artean ulertzea, uste dugu gor-mutuen inklusioa gizartean oso onuragarria izan daitekeela gaur egun. Aplikazio hau oso berdina da atzerriko hizkuntzak irakasten dituzten aplikazioekin alderatuta, metodo berdina jarraitzen du, hau da, egunero hiztegi berria irakasten dituzten proba didaktikoak egongo dira eta baita ere, emandako hiztegia barneratzeko proba edo testak egongo dira. Merkatuan gaur egun pilo aplikazio daude eskuragarri hizkuntzak ikasteko baina bat ere ez gor-mutuen hizkuntza irakasten duena.

Gure aplikazioak asetzen duen behar nagusia da gor-mutuen eta hiztunen arteko elkarrizketak ulertzeko arazoak konpontzen dituela. Hau da, hiztun batek gor-mutu batekin elkarrizketa bat izan nahiko balu, aplikazio hau deskargatuz lortuko luke gor-mutu hizkuntza era didaktiko batean ikastea eta joan behar ez izatea kurtsoak hartzera edozein lekutara, bigarren aukera askoz deserroso izanez.

Proiektu honen helburuetako bat ere da sustatzea hiztunen eta gor-mutuen arteko harremanak, hau da, gor-mutuek ez izatea bakarrik harremanak beste gor-mutuekin baizik eta gor-mutu hizkuntza dakiten gutxiek baizik eta, lortzea jende askoz gehiago jakitea hizkuntza hau eta, ez baztertea gizatalde hau.

Gure proiektuaren arrakasta haren originaltasunean eta haren praktikotasuenan datza, ulertezina da gaur egun gizatalde handi batekin jende askok elkarrizketa bat izateko gai ez izatea. Aplikazio honen helburua ez da gor-mutu hizkuntza guztiz menderatzea baizik eta, hiztegi oinarrikoena ikastea askoz errazagoa izateko bizikidetzeta eta, gizatalde honi baztertzen gelditzea honen komunikatzeko modua ez ezagutzeagatik.

Ekonolariak